

ASTEKARIA: 28. atala

DATA: 2025/01/17

GUREAN

DANBOR HOTSAK

Gaurkoa eta San Sebastian eguna mimo handiz prestatzen ditugu urtero. Lehendabiziko entseguen Gabonak aurretik hasi ginen eta, azkenean, iritsi da egun handia. Gaur, danbor hotsak entzungo dira ikastolan. Eguerdiko 13:30ean DBHko ikasleen txanda izango da eta arratsaldeko 15:30ean HH eta LHkoena. Horretaz gain, astlehenean, Donostiako erdigunera hurbilduko gara. Eguerdiko 12:00etan hasiko da desfilea Alderdi Ederren. 4625 partehartzaile inguru elkartuko dira Haurren Danborradari kolorea emateko asmoz. Primeran pasa!



GURE INGURUAN

DONOSTIAKO DANBORRADA



Donostiako Danborrada hiriaren jai ospetsuenetako bat da, urtarrilaren 20an ospatzen dena. Milaka lagunek danborrak eta kupelak joz desfilatzen dute kaleetan, musikaz eta tradizioz betez San Sebastian bere zaindariaren omenez.



HAURREN DANBORRADA

Hainbat artisautzako gremio, elkarte eta erakundek antolatutako lehen danborradetan, kideak beti izaten ziren helduak 1927ra arte; Zorroagako haurrekin esperientzia bat izan ondoren, Euskal Billera elkarteak, bertako presidente Mauricio Echanizen ekimenez, desfile bat antolatzea erabaki zuen, haurrek bakarrik osatua, eta nesken paperak, helduek egiten zuten bezala, kantinera, banderadun eta Easo Ederra izango ziren. Haur Danborradaren aurreneko edizio hartan Alfredo Taberna izan zen Danbor Nagusia, heraldoekin eta gastadoreekin, danborrekin eta barrilekin. Aurtengo danborradari buruzko informazioa:

